

Gilles Perrault

**Bi epaile
frantziarrentzako
eskutitza**

**Cruz de Honor de la Orden
de San Raimundo de Peñafort
domina jaso dutela eta**



Jatorrizko izenburua: *Lettre à deux juges françaises
décorées de la Cruz de Honor de la Orden de
San Raimundo de Peñafort*
Itzulpena: Zorion Zamakola

Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Editorial Txalaparta E.M.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta-kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Faxa 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

Lehenengo edizioa

Tafalla, 2007ko azaroa

Copyright

© Txalapartak
© Gilles Perraultek
© Zorion Zamakolak

Maketazioa

Monti

Inprimaketa

RGM

ISBN

978-84-8136-503-0

Lege gordailua

BI-3.344-07

EDITOREAREN OHARRA

1993KO MAIATZAREN ZAZPIAN, Tomas de la Quadra Espainiako Justizia ministroak Cruz de Honor de la Orden de San Raimundo de Peñafort dominarekin saritu zituen Laurence Levert eta Roger Leloire epaileak eta Irene Stoller fiskala, ETAREN kontrako jardunagatik. Ohiko bilakatu zaigun elkarlan frantziar-espainiarraren kate-begi berri horrek gutun publikoa idaztera bultzatu zuen Gilles Perrault idazle eta kazetari frantziarra: *Lettre à deux juges françaises décorées de la Cruz de Honor de la Orden de San Raimundo de Peñafort* (Fayard, 1999).

Zola gogora ekartzen duen estilo zuzen eta zorrotzez, epaileei zuzentzen zaie idazlea. Zergatik? Idazleak berak etsipen puntu batez aitortzen du: «Ez, gero, zuek konbentzitzeko

itxaropenez. (...) Gorde ditzagun bakoitzak geure terroristak. Egia tristea da: badakit ez diodana inori interesik piztuko. “Zure euskaldun horiek” esaten didate familian eta inguruko lagunek; badirudi, nonbait, apeta ulertezin bat dela medio, galtzear dagoen –eta desagertuta ere galera penagarria izango ez litzatekeen– espezie higuin garri samar batekiko interesa piztu zaidala. Lehen aldiz hartu dut idazluma honako aldartez. (...) Nire adiskide euskaldunek eurek ere ez dute sinesten idazketaren ahalmenean. Oker daude, baina horrela da».

Perraultek, aldiz, eskarmentu handiko abokatu, kazetari eta idazlea den aldetik, irmoki sinesten du hitzaren ahalmenean, eta are irmoago sinesten du euskaldunon euste gaitasunean. xx. mendearen bigarren erdiko europar intelektualik handienetakoa izaki, estatu gizonak terrorista bihurtzen ikusi ditu, terroristak estatu gizon, nazioak estatu eta estatu bakarra hamaika. Aljeria, Vietnam, Herrialde Baltikoak, Hegoafrika, Irlanda, Quebec, Ben Bella, Ho Chi Minh, Mandela, Arafat, Adams... Etenik ez duen kolonialismoaren soka luzeak egia biribilak erakutsi dizkio Perraulti, eta eskutiz

luze hau erabiltzen du Leverti, Leloireri eta Stollerri soka horren ahula erakusteko: «Zuon borroka aurretik galduta dagoela esateko idazten dizuet».

Eskutitza hartzaileen eta idazlearen beraren unibertso frantsesetik idatzia dago, eta, beraz, ezin konta ahala dira frantziar kultura, historia edo politikari egiten dizkion aipamenak. Itzultzaileak, Zorion Zamakolak, frantziar magistraturatik kartzela-sistemara pasatu denak, apailatze lan ederra egin zuen oin-oharren bidez alderdi ilun horien guztien azalpena emanek. Hala ere, Zorionen lan eskerka pittin bat alboratzearen aldekoa izan naiz, testuaren estilo bizia ez kamustearren. Hala, bada, irakurleak ez du aurkituko azalpenik Vergincetorix, Coluche, Papon eta enparauen inguruan. Egileak egin dituen hainbat akats txikiren –*Eginen* sorrera data, adibidez– oin-oharrak ere baztertu ditut. Azalpenak egileak berak eman dituenean utzi egin ditut eta kasu bakan batzuetan. Horrez gain, itzultzaileak egin dituen beste hainbat ohar bere horretan utzi ditut, merezi dutela iritzita. Espero dut egileak, itzultzaileak eta irakurleak onetsi-

ko dutela nire irizpide hori, ustez obraren mesedetan jokatu baitut.

Idazketaren ahalmen mugatuan sinetsita, euskaldunok badugu parada Perraultek gure herriari botatzen dion begirada xamur bezain zorrotz honetaz gozatzeko.

OKER JOKATU DUZUE. 1993ko maiatzaren 7an, Espainiako Gobernuak, euskal borrokalari eta militanteak jazartzerakoan erakutsi duzuen grina eskertzeko, *Cruz de Honor de la Orden de San Raimundo de Peñafort* delakoa eskaini zizuenean, ez zenuketen onartu behar izan bularrean zintzilikatzerik. Hutsegitea baino txarragoa izan zen: gusturik eza. Frantziako Magistraturak ez zeukan horren premiarik. Bi mendetatik hona, eta salbuespen miresgarriak salbu, zoritzarrezko magistratura horren historiak ezaugarri bat izan du: malgutasun politikoa. Napoleonen epaile zintzo-zintzoek maitasunez betetako ongetorria eman zioten atzerritik Parisera heldu berria zen Luis XVIII.ari; Elbatik itzuli zenean enperadoreari fideltasun osoa bermatu zioten, Waterlooren biharamunean erregezale esnatu

ziren, Uztaileko iraultza gogoz txalotu zuten, 1848an errepublikazale amorratuak zirela ohar-tu ziren, eta laster batean Luis-Napoleoni koroa inperiala janzteko erregutu zioten.

Hurrengo mendea aurrekoa bezain mingarria da: Petaini egindako zina, lau urtetan erresistentziazaleak grinatsu kondenatu eta beste lau urtetan kolaboratzaileak jazarri, geroxeago Aljeria aljeriarraren aldekoiei zigor zaparrada ezarri, eta pixka bat geroago, Aljeria frantziarraren aldekoiei. Historiagile temati batzuen lanari esker, Parisen 1961eko urriaren 17an sarraskitu zituzten aljeriarren gorpuen oroitzapenagure kontzientzia zigortzera itzuli bada, gogorarazi egin behar ote dugu desagertu zirenen familiek ezarri zituzten salaketa guztiak bertan behera gelditu zirela, eta auzi horrek eragin zuen zigor bakarra emakume baten aurkakoa izan zela, sarraskia leihotik ikusi eta poliziei «hiltzaileak!» oihukatu zielako? Horrekin ohar-tuko gara justizia, batzuetan, hilketa bezala, arte eder bat balitz bezala hartu behar dela.

Zorionez, joandako garaiak dira horiek! Baina hara, morroi gisara tratatzen zituen botere politikotik askatzen hasi direnean gure ma-

gistratuak, justu orduan, atzerriko potentzia baten ohore saria onartu duzue. Hausnartu duzue zein bitxia den zuen ekimen hori? Ez al da arriskutsu samarra? Frantzian bertan, ez dugu lan makala zalantzazko harremani ihes egiteko. Zuetako batek ondotxo daki hori, 1989an Clichy herrian zinegotzi izendatu baitzuten Didier Schullerrek¹ zuzentzen zuen zerrendan, eta gaur egun hura atxilotzeko agindua emana dute nazioartean. Halako laguntasun desatseginek halabeharrez sinesgarritasuna kentzen dute. Baina hori txikikeria da *Cruz de Honor* katastrofikoaren aldean, jakinik hori eskaini dizuen gobernuko Barne ministroa, Barrionuevo jaina, Segurtasunerako Estatu idazkaria, Vera jaina, biak ere hainbeste maite zaituztetenak, eta beren hamar kide gehiago *GAL auzia* dela medio leotzeko lasto hezetan daudela? Gure gobernuko kideei horrenbeste buruhauste eragiten dieten txikikerien aldean –gizarte ondasunak bereganatzea eta beste–, munta handiagokoa da,

1. Politikari frantziarra, eskuindarra eta Pasquaren ingurukoa. Diru publikoak ebasteagatik auzipetua [Itzultzailearen oharra].

hala denez, estatu demokratiko bateko ministroak Frantzian hilketa gehien egin duen erakunde terroristaren buru izatea. Sarritan imajinatzen zaituztet bata fiskalaren ordezkorean bulegoan, bestea instrukzio epailearen bulegoan, egun aspergarri baten ostean, atzo hain indartsu eta itzaltsuak ziren eta gaur egun zuen ehizaki gogokoena diren terroristen zaku berean dauden bi gizon horien eskutitzak irakurtzen, *Cruz de Honor* eta abarreatatik zorionak emanez. Gurpilak bizkor egiten du bira, eta ez beti uste den noranzkoan.

Barrionuevo eta Vera jaunek ez bezala, nik ez zaituztet maite. Zergatik idazten dizuet, orduan? Ez, gero, zuek konbentzitzeko itzaropenez. Barakatuko didazue esamoldearen desegokitasuna: gorde ditzagun bakoitzak geure terroristak. Egia tristea da: badakit ez diodana inori interesik piztuko. «Zure euskaldun horiek», esaten didate familian eta inguruko lagunek; badirudi, nonbait, apeta ulertezin bat dela medio, galtzar dagoen –eta desagertuta ere galera penagarria izango ez litzatekeen– espezie higuigarri samar batekiko interesa piztu zaidala. Lehen aldiz hartu dut idazluma honako aldartez.

Idazleak bere burua ilusionatzeko duen ahalmenak maila barregarri eta aldi berean beharrezkoak hartzen ditu. Lantxo batez erditzeaz dagoela, bere burua konbentzitu behar du ezinbestekoa dela gizateriaren ondasunerako. Mundu mailako hondamendi nuklearra? Ados, baina lana argitaratu ostean. Oraingo honetan, halakorik ez. Nire adiskide euskaldunek eurek ere ez dute sinesten idazketaren ahalmenean. Oker daude, baina horrela da. Nork irakurriko du, orduan, nire hau? Zuok biok. Gutxienez, zuok biok. Niretzat, publizistek «publiko gati-bua» deritzotena zarete zuek. Espetxeetan hainbat ziega betearazi dituzten bi pertsona izanik, adjektiboak grazia dauka.

Zuon borroka aurretik galduta dagoela esateko idazten dizuet.



Gure justizia gaztetasun iturria da niretzat.

1955ean hogeita lau urte nituen, eta Parisen praktketan ari zen abokatua nintzen. Ohiturari jarraiki, *bâtonnier*ak niri eta beste

abokatu batzuei ofizioz agintzen zigun militante aljeriar oldeen defentsa egin genezan, halakoak hutsalkeriak baitziren abokatu espezializatuen arreta jaso ahal izateko; horiek, Jacques Verges buru zutela, *kolektiboa* izeneko talde ospetsua osatu zuten handik gutxira. Aljeriar militanteak, ia beti, kuotak jasotzeaz arduratzen ziren, Frantzian zeuden aljeriarren zeregin nagusia FLNren gerra saria hornitzea zen eta. Auziak beti gidoi berari jarraitzen zion: nire bezeroek hasiera-hasieratik herritar aljeriar bezala aurkezten zuten euren burua; auzitegiko lehendakariak, mahaiaren atzealdetik, Aljeriarik ez zegoela eta berak Frantziako hiru departamendu baino ez zituela ezagutzen oihukatzen zuen; gero, suharra bezain hutsala zen sarrera horren ostean, epaimahaiak gertaerak aztertzen zituen. Politikak, oro har, eta Aljeriako arazoak zehazki, ez zidaten axola garai hartan, baina, halere, neure buruari esaten nion bazela aski aztarna zera ondorioztatzeko: nire bezeroen eta pikardiarren edo berriarren artean alde pixka bat bazegoela (besteak beste, nire bezeroetako askok txarto egiten zuten frantsesez, eta itzultzailea

beharrezko bihurtzen zen). Frantziako Magistraturaren adimenaren inguruko iritzi ona gordetzearren, epaimahaitik jaurtitako baieztapen grinatsuen atzean hipokrisia ziniko izpi bat sumatu nahi izango nukeen. Baina ez: lehendakariak eta aholkulariek sinetsi egiten zuten esaten zuten hori. Aljeria Frantzia zen. Batzuetan txundituta geratzen nintzen. Baina nahikoa zitzaidan burua itzultzea eta nire bezeroei so egitea, hitzok beren aurpegietan errebotatzen ikusteko, pilotak horma beltzean bezala.

Euskal militanteei egindako auzietan leku-ko bezala deitu nautelarik, lau hamarkada atzerantz egiten nuen, hogeitau urte nitueneko freskotasunera. Aktoreak aldatu dira, baina gidioa lehengoa da. Arrano txilio eta burla berberak auzipetuek beren burua euskal herritartzat jotzen dutenean; bi noranzko dituen bakarrizketa, salatuak edo auzipetuak erabat mutu gertazera eraman ohi duena. Zigorrak ere garai batean bezain demasak dira, nire bezeroek zigorrez zigor eta epaiz epai mendeetarako espetxealdia biltzen zutenean bezala. Hainbeste, ezen sentsazioa baineukan nire lanbidean egi-

ten ari nintzen lehen urratsak aski ziztrinak zirela; nire bezeroek eurek lasaitzen ninduten: «Ez bururik hautsi, abokatu jauna», esaten zidaten eskuaz lepoan emanez, «honek guztiak ez du iraungo gudak baino luzeago, eta hori ere egunen batean amaituko da».

Parisko xvii. epaitegi korrekzionalan, lehendakaria nabarmendu egiten da. Leba handiko gizona da. Auzipetuekiko hartzen duen jarrerak erakusten du, haren ustez, auzipetuok nolabaiteko ideal bati jarraitzen diotela, nola azaldu, bestela, norbaitek halako zigor itzelak jasotzeko arriskua hartzea bere onurarako irabazirik eskuratzeko itxaropenik gabe. Ideala kritikatzeko modukoa izaten ahal da, eta legearen zigorraren pean ezartzen ditu, gainera, baina, azken batean, ez da arrazoi makurra. Hala-tan, borrokalariei zor zaien errespetua erakusten die, nahiz eta bere lankideek bezainbesteko zigorlatzak ezarri. Behin batean Aljeriako gerraren garaian areto hartan bertan bizi izan nituenak kontatzen entzun ninduelarik, gizon bikain horrek honakoa galdetu zidan: «Benetan uste al duzu Aljeriako eta Euskal Herriko egoerak parekatu daitezkeela?».

Galdera zentzuzkoa zen.



Coluche zenari harrigarri egiten zitzaion Suitza eta Belgika izatea bera ere: horren gauza txikirako, zertarako bi estatu sortu, bat nahikoa eta sobera izan bazitekeen? Galdera egokia litzateke, baita estatuaren beharra aldarrikatzea tokiko herritarren eskaria baino ez den beste herrialde askorentzat ere. Aberriarekiko maitasuna eta izaki batenganako maite garra sentimenduetan hunkigarrienak dira, pertsonarik lasaiena bere onetik ateratzeko eta zuhurra arriskurik itzelenak hartzera bultzatzeko aproposenak, baina, aldi berean, ulertezinenak dira kanpotik ikusten dituenarentzat, eta baita hermetikoenak ere. Eta adiskideren bat gure bihotzean eraginik ez duen emakume batekin sutzen delarik galdera egiten dugun bezala, «baina, zer demontre ikusten dio?», ez dugu lar ondo ulertzen zein grinak eragiten dien uzbekistandarrei Uzbekistan bat nahi izateko.

Hala eta guztiz ere, independentzia gogo sarritan begi onez ikusten da. Hirurogeita hamarreko urteetan, askapen nazionalerako mugimenduak loratzen zirelarik, nire lagun intelektualetako batek dudatsu deitu zidan, herri menperatu baten independentziaren aldeko sinadura eman berri zuela eta. Ez zuen zalantzarik sinadura ondo emandakoa zenik, baina ordua arte inoiz entzun gabea zeukan herri hori zein kontinentetan zegoen jakin nahi zuen. Kontu hau muturrekoa izan daitekeen arren, ia salbuespenik ez duen araua erakusten du: subiranotasuna eskuratu nahian dabilen herri batekiko atxikimendua handiagoa izango da, zenbat eta urrunago dagoen eta aldarrikapen horrek zenbat eta eragin eskasagoa izan norbere herrialdean. Proporzio zuzenean doaz bi joera horiek. Garai batean australiarrek bipilki sostengatzen zuten aljeriarren askatasun nahia. Mozambikeren independentzia gogo onez hartu zuen Islandiako iritzi publikoak. Errusiak izan ezik, bistan da, mundu osoak sentitu berri du zirrara Txetxenia txikiaren alde, nahiz eta gure garaian ondo ikusiak ez diren ezaugarriak

eduki: erlijio musulmana eta jarduera mafiosoetarako joera.

Berezko zerbait bezala sentitzen duen hori galtzeko arriskua daukan herriarentzat besterik da, jakina. Jokoan dauden interesek pisua baduten arren, hutsala litzateke gatazka auzi materialetara soilik mugatzea. Aljeriak independentzia gerrari ekin zionean, kolono handi multzo txiki batentzat eta hango talde ekonomiko batzuentzat irabazpide egokia zen, baina metropoliari kendu egiten zion gehiago eman baino. Ipar Euskal Herria (zuek Frantziako Euskal Herria deritzozuena) Hexagotik banatuko balitz ere, Frantziako ekonomia ohartu ere ez litzateke egingo. Zinez, diru auzietan baino gehiago, sentimenduen sasi trinko batean bilatu behar da herri jagolean sortzen diren bortxazko erreakzioen azalpena: banaketa nahi duen herriaren alderantzizko nazionalismoa, esker txarra jasan izatearen sentazioa, aldaezintzat jotzen den egoera iraultzen ari direla ikusterakoan sortzen den asaldadura.

Belaunaldiz belaunaldi berritzen den egiaztapen tristea: halako gatazka batek per-

tsona zentzudunenak ere adimenaren maila hutsenera eroaten ditu. Zuek biok, bata zein bestea, ez zaudete prest lurralde nazionalaren zentimetro koadro bati ere joaten uzteko. Aitzitik, *Marseillesa* suzkoa abesten imajinatu ahal zaituztet, irratitari entzun diozuenean Komoreetako uharte txiki batek, elikagai arazoak direla medio, Frantziaren magalera itzuli nahi duela. Laburtzeko, abertzaleak zarete. Halere, burugorrrak izan ezean onartu egin beharko duzue Aljeria frantziarra mamu bat baino ez zela eta De Gaulle jeneralak arrazoi zuela sute horretatik atera gintuenean. Denbora joan ahala, agerikoa zena are agerikoago bihurtu da, eta gaur egun ergel fanatiko talde-txo bat baino ez dago kontrakoa esateko. Baina ez ezazue pentsa argitasun hori bat-batekoa eta gehiengo zabalak babestua izan zenik. Lotsaz «gertakizunak» deitzen genituen horiek hasi zirenean, hau da, abertzale batzuek armak hartu zituztenean, oso-oso frantziar gutxi agertu ziren independentzia ematearen alde. Komunistak bai, jakina, baina haien engeiamendua zalantzan jartzeko modukoa zen, *a priori* Mendebaldearen aurka jotzen zuen

ororen alde sutsu agertzen baitziren. Politikar-
rien artean, sozialistetatik eskumara, erabateko
adostasuna zegoen Aljeria betirako Frantzia
zela borobilki adierazteko. Askotan aipatzen
da François Mitterrand, nahasketaren printzea
eta hizkuntza bikoitzaren maisua, garai hartan
Barne ministroa zena. Pierre Mendes France
ez aipatzea, Kontseiluko lehendakaria, larregi
ahaztea da. Aljeriari buruz, Mendesek, inoiz
gezurrik esan ez zuen gizon garbiak, Indotxi-
nan bake gizona izan zenak, ez zuen esaten
Mitterrandek zioena besterik. Negoziaketaren
aukera aipatze hutsa goi mailako traizioaren
mugetan kokatzea zen. Nazioak ere, oro har,
ez zuen barneratuagoa Aljeria Frantziatik be-
reiz zitekeenik. Dien Bien Phuk gogor eragin
ziren Frantziako gogoei, zalantzarik gabe, bai-
na Indotxina urruna ez zen, ezta hurrik eman
ere, kolonoentzako kolonia bat. Milioi bat
pied-noirek izaera berezia ematen zioten Alje-
riari. Kasandra batek garai horretan esan izan
balie indarrez metropolira itzuli behar izango
zutela, inork ez ziokeen sinetsiko. Sei urteko
gerra zikin eta ergela behar izan zen gaur
egun ezin argiagoa den errealitatearen ondo-

rioak barneratzeko: ez, argi eta garbi, Aljeria ez zen Frantzia.



Borondate onez aitortuko nioke xvii. epaitegiko lehendakariari alderatu ahal izateak ez dakarrela halabeharrez arrazoi izatea. Aljeriak independentzia eskuratzea inperio kolonial ohien eremu geografikora mugatzen zen, eta garai zehatz bateko burujabetza prozesu zabalaren barruan kokatu zen. Euskal arazoak Europaren bihotzera eroaten gaitu, eta xxi. mendera, gainera.

Euskal arazoa? Harridura aurpegia ipini duzue. Zein euskal arazo? Frantzian, gutxienez, sinesgaiztasuna da nagusi. Zer da zoroen kontu hori? Gure Euskal Herria! Haren folklore xelebrea! Haren pilotari eta abesbatzak! Oraindik apaizez ondo hornitutako elizak! Hango etxe zuri ederrak landa esmeraldan! Hango *Euskaldun jauzilaria*,² Roland-Garrosen estatua egin ziotena! Gu guztion aberriaren alde isuritako odola gogora ekartzen du-

ten hildakoen aldeko monumentuak! Hango suprefetak! Eta ogi barretarekin batera frantximantasunaren ikur bihurtu dugun euskal txapela... Hain dira ahaide euskaldun horiek, ezen, familia hoberenetan bezala, gure etxeko sua etxeko hautsez estaltzen baitugu. Frantziako haur txiki guztiek negar malkoa isurtzen dute Orreagako lepoan Errolan gartsuari gertatu zitzaiona dela eta. Belaunaldiz belaunaldi mairuek hil zutela esaten diegu, hau da, arabiarrek, gizajoa euskaldunek txikitu zutela ondotxo dakigun arren. Zaila da samurtasun handiagoa erakustea.

Futbola gustatzen zaizue? Pentsatzen dut, mundu guztiak bezala, Munduko Txapelketari begiradatxo bat egin diozuela. Bixente Lizarazu, Hendaiaiko semea bera, halabeharrez nabarmenduko zenuten. Tamaina ertaineko mutikoa, begirada bizikoa, ezker hegaletik baloiak nekatu gabe igotzen zituena. Munduko txapela

2. Roland-Garrosko txapelketa irabazi zuen euskal tenislari ospetsua dakar gogora, Jean Borotra (1898-1994), *Basque bondissant (Euskaldun jauzilaria)* ezizenez ezagutua. Euskaldun jauzilaria, gainera, Frantzia euskaldunei deitzeko askotan erabiltzen den irudia da [I.O.].

pelketan ezin hobeto aritu da. 1996an, Bordeleko Girondinsen sasoi aparta egin ondoren, Bilboko euskal taldera joango zela jakin genuen. Frantziako telebistako kazetari batek galdetu zion ea atzerrira joan behar izateak ez ote zuen iluntzen estimuzko aldaketa horren alaitasuna. «Baina ni ez noa atzerrira», erantzun zion Bixentek, harriduraz. «Kontrakoa: etxera itzuliko naiz». Kazetaria ez zen tematu, baina begiradan erruki puntua nabari zitzaien, Bilbo atzerrian dagoela ez zekien txotxolo ezjakin baten aurrean zegoelakoan.

Euskal Herria 1952an ezagutu nuen. Hurrengo hiru udaldietan gogo onez itzuli nintzen Miarritzera. Garai hartan esan izan balidate biztanleek alderdi politiko bateko kide baino gehiago turismo bulegoko kide ziruditen eskualde xarmant hartan burujabetzarako gogoia zegoela, adarra jotzen ari zitzaizkidala uste izango nukeen. 1955eko udazkenean Châteaueu-Vieuxko kasernako sarrera zeharkatu nuen, Baionan, paraxutistetan soldadutza egiteko. Soldadugaion artean aieneka ari ziren dozena batzuk, nik eta beste batzuek ez bezala, haiek ez zutelako eskatu soldadutza para-

xutistetan egitea, eta jardun leku lasaiagoa nahiago izango zuketelako. Gure artean, hiru euskaldun, itxuraz etsita. Baserritarrak. Ez ziren lagun txarrak, ezta gutxiagorik ere; tokatzen zenean gurekin banatzen zituzten atsegin eta atsekabe txikiak, baina betiere inork haustea lortu ez zuen tartea utzita gurekiko. Ez zuten ezer gustukoago, euren artean biltzea eta ahapeka jardutea baino, beste ororentzat hermetikoa zen hizkuntzan. Abentura askoko bizitzari esker, gure ofizial eta ofizialorde batzuk Europako hizkuntza batzuetan edo dialekto indotxinar zenbaitzuetan hitz egiteko gai ziren, edo murduskatzeko, bederen; haietariko bat japonieraz ere aritzeko gai zen. Baina guztiak ernegatzen ziren gure euskaldunak inguratzen zituen gotorleku linguistikoa hartu ezinik. Gradudun horiek tentelak ez zirenez, laster ohartu ziren hiru euskaldun haiek, berea ez zen istorio batean nahastuta sentitzen diren atzerritar zuhurrek bezala jokutzen baitzuten gure artean, onura gutxi egiten ziotela aginduta geneukan zeregin nobleari: Aljeria Frantziarentzat gordetzea. Euskaldunak desagertu egin ziren, batek daki nora eramanda. Euren ageri-

ko arrotzasunak lekualdaketa hori eragin zien; bretoi eta alsaziarrek, berriz, hori berori lortzeko hainbeste alferreko protesta egiten zituzten.

Ez ditut inoiz ahantzi. Nire lehenengo harrereana izan zen Euskal Herriarekin.



Inperio kolonial zaharretako kontuak garbitzeko garaia joan da. Hemen eta han mendekotasun sotilagoak ordeztu du, baina hori beste kontu bat da. Menderatutako herriek independentzia eskuratu dute eta estatua osatu dute, edo baliokidetzat duten zerbait, kosta ahala kosta. European nazio askapenerako mugimendua ez da Frantzian erregetza berrezarri nahi izatearen pareko *kitscha*, gaur egungo gazte bati Che ez zela rock izarra izan entzuteko itxaropena bezain xelebrea? Europa, kontinente zahar hori, hain luzaroan pasio nazionalistak kiskalia, baina gaur egun zintzotua, otzandua, zuhurtua, garai batean odolezko ibaiekin blaitzen ziren mugak borragoma burokratiko baten kolpe lasaiaz ezabatu dituen.